Zk-5544

AGINDUA, 2001eko irailaren 25ekoa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Mondragón Unibertsitatea, S. Coop. kooperatiba-sozietatea onuragarria dela aitortzeko.

AURREKARIAK

1.– 2001eko uztailaren 10ean, Mila Belategui andreak, Mondragón Unibertsitatea, S. Coop. kooperatiba-sozietatearen izenean eta ordez, aipatutako entitateari herri onuragarritasun-aitorpena emateko eskatu zuen. Eskaerarekin batera, otsailaren 2ko 64/1999 Dekretuaren 7. artikuluan zehazten diren betekizunak betetzeko galdatutako dokumentazioa ere aurkeztu zuen. Dekretu horrek, bestalde, kooperatiba-sozietate onuragarriei dagozkien prozeduren eta betekizunen araudia onartu zuen.

2.– 2001eko uztailaren 11ko idatzi baten bidez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari txosten bat eskatu zitzaion, kooperatibari onuragarritasun-aitorpena emateari egoki irizten zion edo ez adierazteko, 64/1999 Dekretuaren 9. artikuluak xedatutakoa betez. Idazki horri erantzuteko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren Kabineteko zuzendariak sinatutako idazki bat aurkeztu zen 2001eko uztailaren 24an. Idazkia eskaeraren aldekoa izan zen.

3.– Azkenik, 2001eko abuztuaren 6ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren bitartez, espedientea jendaurrean jarri zen, interesatuta zegoen edonork espedientea aztertu ahal izateko eta alegazioak jarri ahal izateko hogei eguneko epean. Epe horren barruan, ez zen alegaziorik aurkeztu.

Aurreko egitateei ezartzekoak dira ondorengo

ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

1.– Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legeak 137.2. artikuluan dioenez, Euskadiren onuraren sustapenari laguntzen dioten kooperatibak herri-onurakotzat joko ditu Eusko Jaurlaritzak, arauz ezarritako prozedura, araubide eta eskakizunen arabera.

2.– Artikulu hori garatuz, otsailaren 2ko 64/1999 Dekretua onartu zen, herri onurako kooperatiba-sozietateei dagozkien prozedura eta betekizunen araudia onartu zuena.

N°-5544

ORDEN de 25 de septiembre de 2001, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se declara de utilidad pública a la sociedad cooperativa denominada Mondragón Unibertsitatea, S. Coop.

ANTECEDENTES DE HECHO

1.– Con fecha 10 de julio de 2001 D.ª Mila Belategui, en nombre y representación de la sociedad cooperativa denominada Mondragón Unibertsitatea, S. Coop., solicitó que dicha sociedad fuese declarada de Utilidad Pública. Se adjuntaba a la solicitud la documentación exigida para el cumplimiento de los requisitos establecidos en el artículo 7 del Decreto 64/1999, de 2 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento sobre procedimientos y requisitos relativos a las sociedades cooperativas de utilidad pública.

2.– Por escrito de fecha 11 de julio de 2001 se requirió del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 9 del Decreto 64/1999, que emitiera un Informe acerca de la procedencia o no de considerar a la sociedad como de utilidad pública; en contestación a dicho requerimiento el 24 de julio de 2001 tuvo entrada un escrito, firmado por el Ilmo. Sr. Director del Gabinete del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, en el que se informaba favorablemente sobre la solicitud.

3.– Por último en el Boletín Oficial del País Vasco de 6 de agosto de 2001 se abría un periodo de Información Pública para que cualquier persona interesada pudiera examinar el expediente y formular las alegaciones que considerase oportunas en un plazo de veinte días; vencido dicho plazo no se presentaron ningún tipo de alegaciones.

A los anteriores hechos son de aplicación los siguientes

FUNDAMENTOS DE DERECHO

1.– El artículo 137.2 de la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi, en su número 4, dice que las entidades cooperativas que contribuyan a la promoción del interés general de Euskadi mediante el desarrollo de sus funciones serán reconocidas de utilidad pública por el Gobierno Vasco conforme al procedimiento, régimen y requisitos que se establezcan reglamentariamente.

2.– En desarrollo de dicho artículo se aprobó el Decreto 64/1999, de 2 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento sobre procedimientos y requisitos relativos a las sociedades cooperativas de utilidad pública.

3.– Onuragarritasun-aitorpena emateko 64/1999 Dekretuaren 7. eta hurrengo artikuluetan ezarritako izapideak bete dira.

4.– Onuragarritasun-aitorpena emateko 64/1999 Dekretuak 5. artikuluan ezartzen dituen betekizunak zuzen bete direla baieztatu da.

5.– Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua da kooperatiba-sozietate bati onuragarritasun-aitorpena emateko eskuduna, 64/1999 Dekretuaren 11. artikuluaren arabera.

Hori guztia dela eta, aipatutako arauak eta orokorrean ezartzekoak diren gainontzeko arauak ikusita, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Mondragón Unibertsitatea, S. Coop. kooperatiba-sozietatea onuragarria dela aitortzea.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen duenez, interesatuek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete egintza hau eman duen organoari. Errekurtsoa jartzeko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera. Hala agintzen da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 116. eta 117. artikuluetan. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan. Horretarako epea hil bikoa izango da, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1a) artikuluan 46.1 artikuluari lotuz agindutakoarekin bat.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko irailaren 25a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

3.– Se han cumplido los tramites procedimentales establecidos en los artículos 7 y siguientes del reiterado Decreto 64/1999 para la declaración de utilidad pública.

4.– Se ha comprobado el correcto cumplimiento de los requisitos que en su artículo 5 establece el Decreto 64/1999 para obtener dicha declaración de utilidad pública.

5.– Es competente para declarar a una sociedad cooperativa de utilidad pública, el Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco, de acuerdo a lo dispuesto en el artículo 11 del Decreto 64/1999.

Por todo cuanto antecede, vistos los preceptos normativos citados y los demás de general y pertinente aplicación

RESUELVO:

Primero.– Se declara de Utilidad pública a la sociedad cooperativa denominada Mondragón Unibertsitatea, S. Coop.

Segundo.– La presente Orden surtirá efectos desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

La presente Orden agota la vía administrativa. Contra ella cabe interponer potestativamente Recurso de Reposición ante el órgano que dicta el presente acto en el plazo de un mes, de acuerdo con lo previsto en los artículos 116 y 117 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común o bien Recurso Contencioso-Administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses, contado desde el día siguiente de la publicación, conforme a lo dispuesto en el artículo 10.1.a) en relación con el 46.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa.

En Vitoria-Gasteiz, a 25 de septiembre de 2.001.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.